



ALKARTU - NAI
BERGARA

Bergarako lehen anbulantzia

Herri bat lanean

Frankismoa gainbehera zegoenean, 70.hamarkadan, erregimenaren aurkako mugimenduek indar handia hartu zuten eta kale istiluak geroz eta gogorragoak ziren: Behin eta berriz jarri zuten Euskal Herria "salbuespen egoeran", greba sindikal eta politikoak indar handiz egin ziren, Euskal Eliza ere gogor zigortu zuten, Burgoseko prozesua gertu zegoen eta anabasa horretan, erakunde ofizialek ezer gutxi egiten zutela ikusita, "auzo mugimenduak" sortzen hasi ziren.

Bergarako Oxirondo elkarteak testuinguru horretan elkarteei karta-jokoan parte hartzera deitu zien. Lortutako arrakasta ikusita beste pausu bat egitera animatu ziren eta Bergarako elkarteez osatutako erakundea sortzeari ekin zioten. Horrela sortu zen Alkartu-nai.

1970eko uztailaren 2an 14 elkarte bildu ziren San Martinetan bildu ahal zuten diruarekin anbulantzia bat erosteko asmoarekin, SEAT

1500 kotxea erosteko behar ziren 21.000 pesetak lortzeko bergarako komertzio eta herritarrengana jo zuten eta denon artean 22.865peseta bildu zituzten.

Alkartu-naik Bergarako "Kultur Ekintza"ren (Promoción Cultural) izenean jarri zuen erositako anbulantzia. Erabili behar ziren oihal eta izarak Trinitateko komentuan prestatu zituzten eta Txofer bat izendatu zuten.

Anbulantziak 1019 bidai egin zituen 1970 eta 1975 artean. Bergaratarrok, diruz, sekula ordaindu ezingo dugun zerbitzua.

